

Patxi Galé

MENDI LASTERKETAK

Bestelako jarduerak gure mendietan zehar

■ JARDUERA BERRIAK, JARDUERA ARROTZAK

Azkenaldi honetan mendiarekin zerikusia duten jarduerak anitzen loraldia ezagutzen ari gara. Osasuntsua dirudi horrek guztiak gure aktibitateerako, baina badaude -beti egon dira- bestelako interpretazioak ere. Mendiaren egiten diren kirol jardueren dibertsifikazioak, mendizaleen bandoak ere sortu ditu aspalditik. Lehenik, badago mendizaleentasuna kirola ez dela defendituko duenik. Mendira jotzen duenak lekuen ezagutza hutsarekin, turismo ibiltariarekin, etnografismo erromantikoaekin, aberriagintza ameslariarekin... lotu dezake bere jarduerak. Beste muturrean badaude kirol jarduerak huts bezala ikusten dutenak eta, ondorioz, mendian ibiltzera, beren hiriko kale nahiz parke batean ariko lirartekeen bezalaxe joaten direnak.

Ez dugu besterik gabe pluraltasun hori gaitzetsiko. Azken finean, nor ote gara ikuspuntuetako bat besteei ezartzeko. Total, mendia plazer iturri izaten segitzen duen bitartean, erabil bedi... Baina kontuz! Alde batetik, gure irteeretako eszenatokia oso hauskorra da eta zaindu beharra dago. Bestetik, guztiok aldi berean aritzean, gus-tuko ez ditugun beste erabiltzaileen praktikak aurkitu ahal ditugu beste zerbaiten bila joan garenean. "Denak balio duela" dioenak, segur aski, ez ditu motokrosa edo ehiztarien jarduerak mendi-kirolen barruan onartuko eta mendiko ibiltari tradiziozaleak, ordea, segur aski gustuko izango ditu ibilaldi aldratsuak... Finean, guztiok dugu ingurumen horretaz gozatzeko eskubidea, baina beste eskubide hori bera errespetatu behar dugu ere, bakoitzak bilatzen duena aurkitzeko aukera zabalik utziz eta, jakina, etorkizunean ere mendiak gozamen iturri izaten segi dezan ahalbidetuz.

Garai batean, jarduerak diferenteen praktikatzaileen artean nolabaiteko eztabaidak

pizten ziren. Denek ez zuten mendian gauza bera bilatzen eta, beraz, ez zituzten ez leku berberak bisitatzen, ez praktika berberak burutzen. Ohikoak izan dira, adibidez, eskalatzaile eta ibiltarien arteko talkatxoak, gurea baino lur menditsuagoetan hain liskartsuak izan ez diren arren. Alpeetan eta are Pirinioetan ere, mendizaleak eskalatzaileengandik hurbilago zeuden gurean baino. Hango paseatzaileek, hemen ez bezala, beren ahalmenetatik kanpo zegoen jardueratzat hartzen zuten, adibidez, eskalada edo eskia, baina ez zituzten arbuaitzen beraien aritzaileak.

Ezin ukatuzkoa da, ordea, "arriskutsu" jo daitezkeen praktika berri batzuek hein desberdineko arrakasta dutela edo izan dutela gure artean ere. Eskia behiala mendiaren etsaitzat ikusten zen mendizale herrikoia-goen aldetik baina, bizimodua hobetu ahala, izugarri hedatu da haren praktika eta lehen baino askoz ere jende gehiagok eskiatzen du gaur egun. Gure hurbileko eski estazioen handitzeak, adibidez, jadanik ez ditu kirolari erromantikoen masak mugiarazten. Masa horiek handitze horietaz gozatzera makurtu dira nolabait.

Azken urte apur hauetan, orain arte ezagutzen ez genituen jardun berri batzuk ere bilakatu dira arrakastatsuz. Bistan da, esaterako, ibilaldi luzeen euskal zirkuituak piztu duen zaletasuna. Mendizale asko dago horiekin zaleturik, motibaturik, engantxaturik, kolgaturik... Euskal Herri osoko talde desberdinek antolatutako ibilaldiek, urrundik etorritako zale asko erakar dezakete eta norabide biko erlazio probetxuzkoa abiatzen dute ekitaldiok: Antolatzaileek beren ahaleginen ordaina aurkitzen dute arrakasta horretan -ohikoan parte-hartzaile kopuruan neurtuta-, beren herriaren inguruko aurkintzak ezagutzera ematen dituzten aldi berean. Parte-hartzaileak, bestalde, eremu geografiko zabal bateko pro-

EL monte ya no es sólo escenario de la actividad montañera más puramente "senderista". Ir al monte en busca de tranquilidad o simple disfrute de la naturaleza, ya no es la única manera de hacerlo. El inusitado éxito de las marchas de largo recorrido, de las carreras de montaña, etc., demuestran que para muchos montañeros la "competición" también resulta motivante. Sin embargo, estas actividades también llevan al monte a deportistas que, procedentes de otras disciplinas, no perciben este medio de la misma manera que el montañero. Estas sensibilidades diferentes dejan un sutil rastro de consecuencias en las "carreras de montaña".

La EMF ha querido integrar entre sus actividades esta nueva subdisciplina deportiva. Pero su semejanza con otros "deportes espectáculo", el dinero que mueve a patrocinadores y organizadores, la reglamentación de circuitos y campeonatos, la concurrencia de deportistas con sensibilidades diferentes... vienen siendo objeto de ciertas críticas en los foros de aficionados, participantes y detractores. Siendo una disciplina joven, se comprende que surjan desacuerdos y polémicas. Sin entender éstas como críticas estériles, todos deseamos que las cosas se vayan haciendo cada vez mejor en beneficio de las actividades montaÑeras y del deporte vasco en general.

posamenak jasotzen ditu eta herri ondoko betiko igoerak errepikatu beharrean, gure geografia zabalago baten ezagutzan menturatzeko aukera eta aitzakia dauka. Konturra gaitzen, hala ere, lasaitasun bila, estresa astindu nahian mendira abiatu den ibiltari hiritarrak, nolako inpaktua pairatu duen, zoritxarrean iganderako hautaturiko mendi eder horretan, berak jakin barik, hiru mila ibiltariren arineketa topatzen badu...

Mendizaleatasunaren hasierako garaietatik lotu da gure jarduerak kirol lehiaketaren munduarekin eta "atleten" imaginarioekin. Dena dela, garai haietan beretan, disidentzia ere piztu zen eta ospakizun jendetsuen arbuioarekin batera, mendiko jardueretan elkarrekin lehiatzearen kontra egin zutenak ere baziren. Arbuio horretatik sortu ziren, adibidez, *ibilaldi neurtuak* ('marchas reguladas') izenekoak. Ibilaldi zehatz bat arinenik nork egiten zuen saritu ordez, ibilera erregularragoan edo batez besteko abiaduran egitea zen helburua. Honela, lehiaketan parte hartzeaz batera, naturarekiko kontaktuak iradokitzen duen lasaitasuna, ibiltarien arteko adiskidetasuna eta halako helburu "erromantikagoak" bilatzen ziren.

Oraindik dugu gogoan *Pyrenaicak* bere azalean praktika berri baten albiste ematen zueneko (125. zkia., 1986). Artikuluaren argazkietan mendizale kirolari batzuk ageri ziren bakarka nahiz talde txikietan. Mendi aurkintza ederretan etzanda eta paisaiak lasaitasunean gozaten aritu ordez, lasterka ez ari ziren bada, zoro haiek?! Orduan ez genuen susmatzen artikulu hura historia



luze bateko lehen muturra baino ez zela izango. Alegia, mendi lasterketek –ibilaldi luzeak bezalatsu– arrakasta itzela izango zutela gure artean eta kirolari andana izugarriak mugiaraziko zituztela.

Itxura batean behintzat, mendizaletasunaren “ohiko balioen” gainbeheraren lekuko gara garai honetan. Oraingo mendizale gazteek ez dute bilatzen –ez mendian ez beste inon ere– mendizaletasunaren aitzindariak bilatzen zituzten helburu berberak, edo ez dira mugitzen motibazio berberen eraginez. Gero eta urrunago daude eta arraroago dira haien artean lehiarik eza, mendiak eman dezakeen bakearen bilaketa, naturarekiko atxikimendua...

Garai batean eskalatazailerak eta mendizaleen artean bereizi nahi izan zen bezala –eta ondoren orobat eskiatzailerekin, snowboarderekin...–, mendi jardueren artean ere badaude gaur egun ulertu beharreko bereizketa arrazoizkoak. Ez dugu hargatik bata zein bestea alferrik kritikatu nahi, baina bistan da eszenatoki berean, jatorri diferenteko pertsonak aurkitzen ditugula eta, onartu nahi ez bada ere, horrek ondorio batzuk dituela batzuentzat eta besteentzat ez ezik, jarduera burutzen den ingurumenerako ere bai.

■ ZENBAIT KRITIKA

Interes handikoa izan ohi da, adibidez, ikusle huts gisa bada ere, era honetako korrikalarien zenbait portaera behatzea. Horietan ere ikus daiteke zer darabilen parte-hartzaile bakoitzak buruan, mendira korrika joaten denean. Mila detailetan ikus daiteke, esaterako lehiatzeko goako men-

■ *Andorrako Ordino herrian izan zen 2007an munduko kopako probetako bat. Argazkian gizonen irteera*

ARGAZKIA PATXI GALÉ

diaren gozatzek baino pisu handiagoa duen ala ez, gainerako korrikalariak kontrako hutsak diren ala ekitaldiaren partekideak, mendia gure zerbitzuko dagoen ala gozagarri eskaintzen zaigun ingurumen zaindu beharrekoa... Azken finean, *mendizaleak versus atletak* kontrajarpenaz ari gara.

Gogoan dugu, esaterako, Ordunteko mendietan zehar egiten den *Galarleiz* lasterketan, 2006an asfaltoko korrikalari ezagun batek parte hartu zuen lehenbiziko aldian, aurreneko emakumezkoarekin batera erdietsi zuela helmuga, 3:27:34 denbora eginik eta bere espektatibak guztiz bestelakoak baziren ere... Ez zuen podiumik egin, baina lasterketari prestigioa ematearren gonbidatua izan zenez gero, espero zitekeen sari emanaldian ere parte hartzea. Zergatik ezin du eraman izen handiko korrikalari “atleta” batek, mendian gauzak diferente izatea?

Ildo honetan, oso da esanguratsua, zenbait lasterkaririk erabiltzen duten diskurtsoa. Bada gure artean lasterketa “teknikoak” gustatzen ez zaizkiola esaten duen mendi lasterkaririk. Zer esan nahi du, ordea, horrek? Pistan edo errepidean hobeto moldatzen direla mendian baino. Mendi lasterketek ez dute bakarrik aldapa eduki behar. Horretarako badaude Asturiasko *Anglirú* mendate ezagunaren igoera bezalako probak, mendi-ingurua bistaz gozatu baina asfalto gainean egiten direnak. Mendian

jarduteak, aldiz, mendian ohikoan aurkitzen diren zailtasunak aurkitzea dakar. Horri ihes egin nahi izatea, “mendi” lasterketei iruzur egitea bezalakotsua da...

Mendizaleari harrigarria gerta dakioken beste portaera bat ikusi dugu han-hemen mendi lasterketen mundutxo honetan. Lasterkariak ari direnean, maiz gertatu ohi da bat edo beste gaizki aurkitzea, nekeak jota ibiltzea edo, besterik gabe, istripurik izatea. Honelakoetan, noski, onena izaten da antolakuntzak behar bezalako zerbitzuak prest edukitzea eta behar duenari laguntza ematea. Baina halakorik ez badago, edo gertatzen den aurkintza zerbitzu horietatik urrun dagoenean, mendian gaudenez gero, espero liteke korrikalariak elkarri laguntza ematea. Bada, ez da hain ohikoa. Zorionez, gutxitan ikusi da honelako egoerarik –aipaturiko testuinguruak ere ezezagutza bultzatzen du, noski–, baina gertatu izan dira, bai. Gaizki dabilena laguntzea eta animatzea mendizale ororengandik espero behar genuke, baina “lagun” hori kontrako bezala ikusten duena ez da gelditu ere egingo laguntza emateko. Oso kontrara, lehiari lehentasuna ematen dionak une horiek aprobetxatuko ditu lehiakideak atzean utzi eta sailkapenean postuak irabazteko. Onena da, aldiz, Andorran antolaturiko lasterketa batean (2006ko *Sky Race* delakoa zehazki, Ordinotik Comapedrosarako igoera, *Sky Games* izeneko programa anitzean kokatua eta munduko koparako puntuagarria) entzun genuela, elkarri sorospen emate hori “kanpoko laguntza” bezala ulertu eta biak –laguntzailea eta lagundua– deskalkifikatzen eraman lezakeela. Zer nolako balioak bultzatzen ditu kirol berri honek?

Behaketa kritikorako beste talaia interesgarri bat helmuga bera da. Korrikalari guztiek ez dute portaera berbera izaten. Esaterako, lasterketaren azken kilometroak elkarrekin eta adiskidantza itxuran egin dituzten korrikalariak, izugarritzko metamorfosia paira dezakete helmugara heltzean. Batzuek eskua elkarri eman eta aldiberean zeharkatzen dute helmuga. Elkarrekin gozatu-tako proba bat pasatu eta krono berberarekin agertu nahia ikusten da portaera horren atzean. Beste batzuek, ordea, beren burua laguna baino indartsuago ikusi eta azken metro fatidiko haietan esprint eroan oldartuko dira marraren bila, lasterkide izandakoa kontrario bilakaturik. Lehen postuetan ohikoagoa izaten da azken portaera hau. 2007an, adibidez, Zornotzako Aramotz mendi-lasterketan protestak eta guzti egon ziren gizonezkoen bigarren eta hirugarren lasterkariak elkarri eskua emanda sartu zirelako helmugan. Nola osatuko dugu orduan podiuma? Nori eman sari desiratuak? Bistan da, podiuma eta sariak bigarren maila batean zeudela lasterkarien gogoan, baina ez protestagileenean.

Mendi lasterketa baten ibilbidean paratzen bagara edaria banatzen den puntu baten ondoan, oso erraz ikus daiteke antolatzaileek eta parte-hartzaileek zer nolako ardura duten ingurumenarekiko, hots, zein postutan jartzen duten afera hau beren lehentasunetan. Zenbait probatan edan eta erabilitako ontziak (basoak zein botilak) eremu zehatz batean uzteko exigitzen duten bitartean, beste batzuetan aipatu ere ez dute egiten hau araudian. Hala izanik ere, parte-hartzaile guztiek ez dute portaera bera eta sinetsita gaude "jatorri diziplinarrik" baduela honetan zerikusirik. Tropa guztia pasatutakoan ibilbidea nola gelditu den behatzea ariketa interesgarria da natura maite duen edozeinentzat.

Azken ohar bat egin behar dugu, mendi lasterkarien jan-edatekoei buruzkoa. Proba bakoitzak bere araudia du, baina oro har, jan-edana ibilbidearen puntu zehatz batzuetan bakarrik jaso daitezke. Zenbait kasutan espresuki debekatzen da kanpoko inork eramatea eta beste batzuetan, ezinbestez eraman behar da aldean beharrezko elikagaia. Maizenik, ondo aukeratutako puntu estrategiko zehatzetan antolakuntzak berak eskaintzen du jan-edana. Proba batzuetan, hala ere, harriduraz ikusi dugu, abituailamendu tokietan eskaintzen zenari uko egin eta ekipoetako arduradunek "produktu bereziak" banatzen zizkietela beren taldekoei -eta ez gara urruneko taldeez ari-. Ez dugu zertan zalantzan jarri behar halakoen onestasuna, baina kontrolik ezak tranparako bide ematen duela dirudi. Azkeneko urteetan behin bakarrik ikusi



■ Zornotzako Aramotz lasterketako helmuga: Arkaitz Zamakona eta Xabier Altzola elkarrekin sartzen

ARGAZKIA IGOR LÓPEZ

■ Abituailamendu puntu bat lasterketa batean zehar

ARGAZKIA PATXI GALE

dugu era honetako proba batean doppingaren kontrako kontrola: Baigorri 2005eko *Euskal Endurance* delakoan. Lehenengo sailkatuei eta zozketan hautaturiko beste apur batzuei egin zitzaien. Kontrol hauek oso garestiak dira eta antolatzaileen poltsikotik pagatu behar omen dira. Horrela normala da kontrolik ez egotea, baina gauzak ondo egin nahi badira erakundeek aldaketa ahalbidetu behar luketela uste dugu.



■ ETA EMF-K ZER?

Bi dira Euskal Mendizale Federazioak gure artean sustatzen dituen aparatua. Alde batetik, lehiaketa ofizialak –funtsean *Euskadiko kopa* eta *Euskadiko txapelketa*– eta, bigarrenik, *Euskadiko selekzioa* deitu izan dena, lasterkari hautatu batzuek osaturiko talde ofiziala –gure ordezkariak– hemengo nahiz kanpoko lehiaketetan parte-hartzeko.

Euskadiko txapelketa proba bakarrean erabaki ohi da eta kopa, berriz, aurretiaz aukeratutako lasterketa batzuetan lorturiko emaitzen arabera, kalkulurako kategoria bakoitzerako puntuen bidezko prozedura konplexu bat jarraiturik. Lehiaketa ofizial hauek antolatze eta gure ordezkaria izango den selekzioa mantentzeko, arduradun federatiboek lasterkarien hautespena egin, interesgarriak direnak erakarri, diru laguntzak lortu, bakoitzarentzat proba egokienak aukeratu, horien emaitzak kontrolatu, sailkapenak egin eta era horretako zereginak bete behar izaten dituzte. Orain arte alor horietan egin direnak oso kritika gogorak jaso dituzte eztabaida foroetan. Eginbehar erraza ez dela onaturik ere, kritika horietako batzuek justifikazioa dutelakoan gaude. Komenta ditzagun haietarik batzuk.

Segur aski gauzak ondo ibiltzeko lehenengo urratsa dirua lortzea da eta selekzionatzaileen eginbeharretako bat horixe izaten da. Kirol markak izaten dira selekzioa ekipatu eta, hainbatetan, probetarako sariak ematen dituztenak. Horren truke, noski, lasterkariak markaren publizitatea egin behar izaten dute edo, kasurik onenean, material hori agerian eraman, bai korrika ari direnean eta bai –bereziki– podiumera igotzen direnean. Berako lasterketa entzutetsuaren azken edizioan (2007/04/29) ikusi genituen selekzio kirolariak nahiz prestatzaileak eta Federazioko arduradunak –korrikalari izan ez arren–, marka patrozinatzailearen zapatilla deigarriak jantzita. Agian beharrezkoa zen hain nabarmen jokatzeko. Markakoak ez ziren, bada, kexatuko. Dena dela, kontu egin dezagun kirol jarduera honen osasuna eta arrakasta haren inguruan, mugitzen den dirutan neurtzeko joera izan ohi dela. Adibidez, 2007ko Canazei-ko lasterketaren aurkezpenean (2008/07/26), mendi lasterketen bultzatzaile eta FSAko lehendakari Marino Giacometti, harro aireratu zuen arrakasta hori, frogarri bezala, urtean zenbat milioi euro mugitzen dituen esanda.

Euskal lehiaketa ofizialetan proba bat aukeratzeko ere, badirudi ibilbidearen edo antolamenduaren ezaugarri teknikoek ez dutela garrantzirik handiena. Zenbait kasu-

Euskadiko txapelketa:	Apirilaren 6an: Gasteizko I. Mendi maratona
Euskadiko kopa:	Maiatzaren 13an: Azkoitiko maratoierdia
	Ekainaren 8an: Baigorriko Artzainen lasterkaldia
	Irailaren 23an: Olatzagutia-Urba
	Laugarren proba bat Bizkaian zehazteke

EMFk antolatutako 2008ko denboraldia



■ Beran izan zen 2007an Euskadiko txapelketa. Emakumezko seniorren podiumean Alicia Olazabal txapelduna, Nerea Amilibia eta Cristina Arbués

ARGAZKIA PATXI GALÉ

tan, herri batek edo kirol elkarte batek antolatutako jarduerari baino gehiago, publizitateari edo patrozinatzaileen intereseari –diruari alegia– ematen zaie lehentasuna. 2007an bereziki bitxia izan da, adibidez, Euskadiko koparako proba puntuagarrien hautespena. Aipaturiko herri edo kirol taldeen ekinbideak baino hobetsi da kasuren batean, merkatal zentru ezagun batek antolatutako proba –Gorlizko *Kosta-trail* delakoa–. Era honetan, lan izugarria eginda, beste lasterketa interesgarri askoren antolatzaileak hautatuak izatearen saririk gabe gelditu dira, dirua erruz mugitzen duen kirol enpresa baten mesedetan. Segur aski, hau kirolaren

promoziorako ontzat har daiteke argudioren baten argitara, baina guk ez dugu konpartitzen. Are gutxiago proba horren punturik altuena 280 mko Ermua mendia izanik, ez duenean betetzen mendi lasterketa izateko baldintzarik. Izan ere, araudiaren lehenengo atalean (*Sarrera eta helburuak*) zehazten denez, mendi lasterketen mailarik apalenean 300 mko punturen bat erdietsi behar da. Gainera, kirol jardueraren izaera ukatu nahi gabe ere, mendi lasterketaren itxura gutxi du, Portugaleteko zubia zeharkatzen duena eta hondartzetan zehar lasterka eragiten duena. Oso esperientzia ederra izan daiteke, baina guk pista amerikar baten itxura handiagoa hartzen diogu mendi lasterketa batena baino. Oharrazki behar da, proba hau *in extremis* sartu zela 2007ko Euskadiko kopa eta EMFko Web ofizialean, oraindik 2007aren amaieran ikusi zitezkeen proben bi egutegi: batean agertzen zen eta bestean ez. Segur aski, bazilazio horien oinarrian egokitasunaren zalantza egongo ziren eta... gaude azken arrazoiak dirutan ere neurtu litezkeela, batez ere, gorago aipatu enpresa bultzatzaileak antolamenduaren kontratua nori eman zion erreparatzen badugu...

Zorionez, eta mendi lasterketek besterik gabe gozatu nahi dutenentzat, Euskal Herrian oso lasterketa egutegi aberatsa dugu. Segur aski, gure herrietako elkarte eta antolatze joera biziari esker, hainbat lekutan kirolari lokalak era honetako jarduerak diseinatu eta burutzeko mugitu egiten dira.

Euskadiko kopa - 2007

Gizonetakoak		Emakumezkoak		
Seniorrak	Beteranoak	Seniorrak	Beteranoak	
1	Jabi Olabarria	Jesus Mari Perurena	Jone Urkizu	Ana Cárcamo
2	Iñaki Lopetegui	Eduardo Calleja	Nekane Ituarte	Helena Pérez
3	Juan Manuel Martínez	Rafael Fernández	Marta García	Irene Sarrionandia

2007ko Euskadiko kopako sailkapenak. Azkenean honako proba hauek hartu ziren aintzat: Orozko, Kosta trail, Lakuntza, Ezpeleta eta Zegama.

Hilabetea	Eguna	Lasterketa	Kontaktua
Martxoa:	30	Sara korrika trail (24 km, 1443 m)	www.sarakorrika.com
	30	Adarrako igoera, Urnieta (14 km, 1400 m)	www.herrikrossa.com
Apirila:	6	Gasteizko I. mendi maratoia (42 km, 3600 m)	www.ascentium.org
	13	Berako mendi maratoi erdia (21 km, 2240 m)	www.manntale.com
	20	Aloñako igoera, Oñati (16,5 km, 2200 m)	www.txantxiku.net
Maiatza:	4	Pagoeta mendi lasterketa, Zarautz (15 km, 1458 m)	www.mundurats.net/pagoeta
	11	Azpeitiko Izarraitz maratoierdia (21 km, 2848 m)	www.euskalnet.net/anaitasunamb/Index_espainiera.htm
	25	Zegama-Aizkorri mendi maratoia (42 km, 5500 m)	www.zegama-aizkorri.com
	?	Bidarraiko feria lasterketa (16 km, 1050 m)	altxora@hotmail.fr
Ekaina:	?	Kosta trail, Getxo-Gorliz (27 km, 1000 m)	www.kostatrail.com
	?	Atxondo-Anboto igoera (km vertical) (5 km, 1109 m)	www.brinean.com
	8	Artzainen lasterkaldia, Baigorri (21 km, 1410 m)	famille.garces@wanadoo.fr
	?	Arnoko mendi lasterketa, Mutriku (24 km, 2400 m)	www.burumendi.com
	14	Hiru handiak, Zalduondo (100 km, 9800 m)	www.manueliradier.com
	15	Lakuntza-Aralar (28,9 km, 2350 m)	www.lakuntza-aralar.com
	21-22	Orozko mendi lasterketa (42 km?, 5500 m)	www.orozko.org
	29	Camille Extreme, Izaba (31,4 km, 3500 m)	www.adi-ike.com/euskaraz/camille/camille.htm
Uztaila:	5	Ezpeleta (27 km, 1100 m)	www.napurak.org
	6	Aramotz mendi lasterketa, Zornotza (26,5 km, 3200 m)	www.aramotzmendilasterketa.com
	?	Amaña-Urko-Amaña krossa, Eibar (6 km, 650 m)	www.amanaurko.com
	27	Galarleiz mendi maratoia, Zalla (42 km, 3500 m)	www.galarleiz.or
Abuztua:	?	Kontrabandisten lasterketa, Sara (9 km)	
Iraila:	?	Lezama (23 km, 1650 m)	www.lezamabizirik.com
	7	Mendatako mendi maratoia (42 km, 1578 m)	www.mendataezagutuz.com
	21	Olatzagutia-Urbasa (22,9 km)	www.olatzagutia-urbasa.net
Urria:	?	Txarrazoko igoera, Urduña (10 km, 1054 m)	www.mc-sport.com

Euskal Herriko mendi lasterketen egutegia 2008 (Gaizka Barañano "Txapel")

Esan bezala, modu horretan beren herria ezagutzera emateko aukera izaten dute, kanpoko lasterkariekin eguna jai-giroan pasatu eta, finean, herrietako bizitza nagari astinalditxoaren ematen diote egun handi horretan. Era honetako lasterketetan parte hartzeak, herrigintza egitasmo horietako eragile aktibo bilakatzen ditu korrikalariak eta hau, kirol helburuak direnak direla ere, lasterkariaren gozamenarako arrazoi bat gehiago izan daiteke.

Gure selekzioeko partaideen hautespen irizpideez ere asko hitz egin da lasterkariaren forotan. Lehenago esan dugunez, hainbeste lasterkari onen artean aukeratzeko ez da lan erraza izan behar. Gainera, bakoitzari programa egokia egin behar zaio, dauden lehiaketak eta zirkuituak (mundua, Europa, Espainia...) ezaugarri desberdinetako kirolariak eskatzen dituztelako. Hautatzaileen lana da, beraz, egutegia eskuan lasterkari bakoitzari zeintzuk proba egokitzen zaizkion plani-

fikatzea –beti ere kirolariaren onarpena kontuan izanik, noski-. Egin dezagun kontu, hautaturiko horiei ekipamendua ez ezik, bidaiak eta abarrak ere ordainduko zaizkiola... Selektzioaren aritu diren lasterkariak, entrenamendu gisa bada ere, parte-hartu ohi dute hemengo zenbait probatan eta bertan beste korrikalari batzuekin neurtzen dira halabeharrez. Kasu askotan emaitzak ez dira izaten espero litezkeenak eta, ondorioz, jendea galdetzen hasten da ea zergatik ote dauden daudenak eta zergatik ez ote dauden emaitza hobekiak lortuko lituzketen beste batzuk. Eta erantzunak ez dira aisea aurkitzen –eman ere, azalpen gutxi eman ohi dira–.

■ KIROLA BULTZATEN ARI?

Estatuko beste zenbait ekipotan ez bezala (Katalunia, Madril...) Euskadiko selekzioak ez du beteranoren kategoriari partaiderik. Segur aski, aurrekontu murriztaren ondorioa da hau, baina nekez defendi daiteke

politika hori Euskal Herriko beteranoren emaitzak ikusita. Adibidez, 2005eko Euskadiko kopan lehenbiziko gizonetako Ionut Zinka izan omen zen, selekzioaren dagoen gasteiztarra. Era honetan emandako albisteari inork ez dio erreparorik jarriko, baina apur bat sakonduz gero, kategorien banaketan behatu behar genuke, kopa ere halaxe antolatuturik dagoelako. Ionut Zinka lehenbiziko seniorra izan zen eta lehenbiziko beteranoa Josean Estenaga. Bada biek hartu zuten parte kopaka hiru lasterketa berberetan eta... Estenagak 18 min eta 38" gutxiagotan egin zituen! Ionut Zinka oso lasterkari ona da eta ez dugu zalantza egiten selekzioaren egon behar dela, baina non dago Josean Estenaga? Ez da batere ezaguna eta azkenaldi honetan utzi egin ditu mendi lasterketak, adinagatik ala apatia orokorragatik ote den ez dakigula. Guk ere utziko genituzkeen.

Beste horrenbeste esan daiteke Helena Pérez lasterkari beterano gorliztarraz. 2005,

Izena	Aloña	Lakuntza	Baigorri	Guztira	Kategoria	Postua
Josean Estenaga Ortiz de Guzman	1:19:47	2:20:40	07:32:43	11:13:10	Gizon beterano-2	1.a
Ionut Alin Zinka	1:14:13	2:10:11	08:07:24	11:31:48	Gizon seniorra	1.a
Xabier Larrion Osés	1:23:53	2:24:11	07:48:45	11:36:49	Gizon seniorra	2.a
Jose Luis Albizuri Beristain	1:26:25	2:29:00	07:53:10	11:48:35	Gizon beterano-2	2.a
Unai Santamaria Aranburu	1:21:49	2:22:22	08:14:25	11:58:36	Gizon seniorra	3.a
Luis Mari Ugarte Azkarraga	1:29:24	2:32:38	08:30:34	12:32:36	Gizon beterano-1	1.a
Igor Lopez Gonzalez	1:33:45	2:37:40	09:15:47	13:27:12	Gizon seniorra	4.a
Jose Antonio Salgado Mangas	1:50:01	2:30:36	09:07:33	13:28:10	Gizon beterano-2	3.a
Alicia Olazabal Donato de Lopez	1:32:54	2:45:23	09:38:07	13:56:24	Emakume seniorra	1.a
Patxi Artola Altuna	1:41:13	2:55:13	09:41:06	14:17:32	Gizon beterano-1	2.a
Gorka Azkarate Torner	1:36:29	2:53:44	09:51:07	14:21:20	Gizon seniorra	5.a
Helena Perez Gutierrez	1:47:00	3:01:42	09:52:48	14:41:30	Emakume beteranoa	1.a
Victor Luis de Pedro Goiri	1:51:11	3:20:12	10:31:22	15:42:45	Gizon beterano-2	4.a
Marta Garcia Oteiza	1:55:20	3:09:30	10:53:51	15:58:41	Emakume seniorra	2.a
Asier Lasa Erle	1:55:18	3:28:43	11:24:01	16:48:02	Gizon seniorra	6.a

Euskadiko kopa
1.- Ionut Alin Zinka
2.- Xabier Larrion Osés
3.- Unai Santamaria Aranburu

2005eko Euskadiko kopako hiru probak egin zituzten lasterkari guztien emaitzak eta prentsan "laburbilduz" agertu zen sailkapena



■ Zegamako lasterketa amaitu ondoren, Kataluniako taldeak 2007ko merezitako lehen saria jasotzen. Egiatzko ekipo bat egiazko nazio batentzat

ARGAZKIA PATXI GALE

2006 eta 2007an neurria eman du Euskadiko kopan ez ezik, mundukoan ere bai. Azken lorpena, 2007ko munduko kopan hamargarren gelditzea izan da, Euskal Herriko puntako neskekin batera. Hori bai, bidaiak eta ekipamendua bere poltsikotik ordainduta. 2006ko Zegamako lasterketan ere zortzigarren gelditu (Euskal Herriko bigarrena) eta selekzioaren emaitza eskasak estaltzearren, sailkapen orokorretik ezabatua izan zen. Antolatzaileek ez baina selekzionatzaileek 35 urtez azpiko kategoría absolutua [sic] aipatu zuten hori justifikatzeko. Ez dugu kategoría hori araudian aurkitzen, segur aski ez dagoelako (ikus kategoriak araudiko 2.2.8 puntuan). Kazetariak -eta Pyrenaicak ere orobat-selekzionatzaileen argudioak ez zituzten zalantzan jarri eta haien korifeo hutsak bilakatu ziren, gure kazetaritza-ikerketak mailaren erakusgarri.

2006. urteko kopak ere izan zituen gorabeherak. José Antonio Salgadori Zarautzen egin ohi den Pagoetako lasterketan (2006/06/05) irabazitako puntuak gehitzea "ahaztu" zitzairen gure federatiboetara. Beteranoen sailkapenean bostgarren gelditu zen 01:16:01 denboraz eta, beraz, puntutxo batzuk jaso behar zituen. Ez egitean, zeharo aldatuta eman zen urte hartako gizonezko beteranoen podiuma, Jose Antonio Salgadori bigarren postua baitzegokion eta hamargarren tokian ageri zen. Interesatua oharturik zegoen arren, ez zuen erreklamazioarik egin. Total, Euskadiko koparen prestigioak ez omen du merezi eta erreklamazioak ez dira ongi etorriak izaten...

Esan dugunez, erreklamazioak ez dira ongi etorriak izaten kopako antolatzaileen aldetik. 2007an Euskadiko kopan hainbat jende aritu zen eta zirkuituaren amaiera Zegama-Aizkorri proba ezagunean izan zen (2007/09/23), munduko koparen bukararekin bat eginik. Hala ere, hain entzute-tsua eta hain maila altukoa izateak, jende gehiegiren parte-hartzea ekarri du eta, antolatzaileek kopuru muga bat ezarri behar izan dute proba horretarako. Marka on ezagunak dituztenek edo zirkuituetan aurrean dabilzanek ez dute arazorik izaten dortsala

lortzeko. Gainerakoek, aldiz, zozketa bidez aukeratzen dira milaka aspiranteren artean. Beren kategorian Euskadiko kopako beste probetan postu ona lortutakoek hitz emanda zeukaten Aizkorrirako dortsala. Bada 2007an, beteranoen podiuma egiteko asmoa zeukan Josemi Rezola zornotzarrak, akats batengatik kanpo gelditu zen. Berako lasterketan bostgarren beterano gelditu zen baina, antolatzaileek, tamalez, bere anaia gazteagoarekin nahastu zuten sailkapenean eta federazioan ez zen zuzenketarik egin. Euskadiko kopako antolatzaileek ez zuten urratsik ere eman datu okerrak zuzentzeko eta Josemik Aizkorrirako dortsalik ez zuen lortu. Txarrena EMFtik jaso zuen erantzuna: *denborarik ez zeukatela halako txikikerietan galtzeko...* Josemiren ilusioa zen Euskadiko kopan podiumera igotzea eta urtebetean aritu zen prestatzen. Aurten ez da federatu ere egin.

Era honetako frustrazio bakarra ez da, ordea, Josemirena. Altsasuko Jone Peláez

lasterkari beteranoak 2007ko Euskadiko kopa lortzeko hartu zuen parte zirkuituko probetan. Prestatu ez ezik, lasterketa egutegia ere arreta handiaz prestatu zuen eta postu onak lortzen joan zen lasterketaz lasterketa. Beran ospatu zen Euskadiko Txapelketa ere berak erdietsi zuen. Zorionez, Aizkorrirako dortsala ere lortu zuen eta nahigaberik ezean beterana txapeldun izango zen ia seguru. Horregatik familia ere joan zitzaion Zegamara, hainbeste izerdiz irabazitako podiumeko irudia bertatik bertara ikusi eta ospatzeko asmotan. Podium ordua heldu zenean, esatariak Euskadiko kopari izena aldatu eta "Euskal Herriko kopa" bataiatu zuen. Sariak banatzen hasi eta... haien txanda zeterrenean, amaitutzat eman zuten ekitaldia eta azalpenak emateari ihes egin zioten arduradun guztiek... Aste batzuk beranduago jakingo zuen Nafarroako federatua izateagatik ez ziotela saria eman. Badakigu Nafarroako Federazioa EMFtik urruntzea nafar mendizaleen ordezkarien erabakia izan dela eta ez gainerakoena, baina zilegi ote da jendearen ahalegin eta sentipenekin modu honetan olgetan jardutea?

Aizkorri izan zen, esan dugun legez, 2007ko denboraldiaren azken mukurua, *Euskal Herriko kopa* bataiatu berriaren -gaurkotasan handiko gaia hau- sariak ez ezik, munduko kopakoak ere banatu baitziren. Ekipoei dagokienaz, munduko irabazlea Katalunia izan zen. Hunkigarria gertatu zitzaigun batzuoari saria eman zioteneko unea. Taldeko beteranoak kirol diziplinari buruzko hitzaldiak ematen ari dira beren herrian zehar, bereziki gazterian etorkizuneko kirolariak bilatu eta bultzatu nahirik. Selektionatzailea hor ari da, jo eta ke, lasterkariak kontrolatzen, diru laguntzak hitzartzen, programak prestatzen... Aurkezpen eta ekitaldi publiko guztietan ere ikusten ditugu, egiazko ekipoa osaturik prentsa eta zalegoaren aurrean. Hainbeste dugu hemen ikasteko...! Hunkigarria izan zen benetan guretzat saria eman zitzaieneneko unea eta *Els segadors* entzun bitartean ondo mereziriko txaloaldia eman genion talde hari. Egiatan, bekaitza sentitu genuen, katalanak elkarri besarka ikusi genituenean, goitik behera ekipo bat osatzen zutela, egiazko herri baten egiazko ordezkari, identifikatzen zituen himno hark hunkiturik... □

BUFF-SKYRUNNER WORLD SERIES FSA 2007		
	Gizonezkoak	Emakumezkoak
1	Kilian Jornet (Catalunya)	Angela Mudge (Saab Salomon)
2	Raul Garcia (La Granja-Valsain)	Corinne Favre (Team Valle d'Aosta)
3	Tofol Castanyer (Catalunya)	Stéphanie Jiménez (Andorra)
4	Andre Symonds	Anna Serra (Catalunya)
5	Jessed Hernández (Catalunya)	Mónica Ardid (Catalunya)
6	Fernando Echegaray (Euskal Selektzioa)	Alicia Olazabal (Euskal Selektzioa)
7	Agusti Roc (Catalunya)	Miryam Talens (Running team)
8	Ionut Zinca (Euskal Selektzioa)	Daniela Vassali
9	Juan Antonio Ruiz (Runnig team)	Alicia Romero (Euskal Selektzioa)
10	Eduard Barceló (Andorra)	Helena Pérez

2007ko munduko kopatzat hartzen den Buff-Skyrunner world series delako zirkuituko sailkapenak. Gizon-emakume baino beste kategoriarik ez da egiten. Honako proba hauek sartu ziren: Berga, 4 Luglio, Andorra, Dolomiti, Malaysia, Nagano eta Zegama.